Buruxka

Proyecto "Recuperación del espigamiento como valor social y ambiental"
Proiektua "Galburuen bilketa berreskuratzea gizarte- eta ingurumen-balio gisa"

PRENTSA OHARRA

2020ko irailaren 29an

Buruxka proiektuaren lehen galburu-bilketak hasi dira

Nafarroan espigamenduaren praktika berreskuratzeko berrikuntza sozialeko proiektua

2020ko irailaren 21, 26, 28 eta 29an lehen galburu-bilketak egin dira Sartaguda, Carcar eta Lakar herrietan. Horietan hogei lagun baino gehiagok parte hartu dute, proiektuko lantaldearekin batera aritu dira boluntarioak eta Abartzuzan dagoen Zumadia eskualdeko landa eskolako ikasleak. Osotara 951 kilo tipula, mahats eta tomate bildu dituzte eta hauek kolektibo sozialei eman zaizkie, hala nola Lodosako Elikagaien Bankuari (Udalak utzitako egoitza), Caritasi eta inguruko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei, besteak beste.

Jarduera horiek ekoizle-laguntzaileen soroetan egin dira, Lezaun Upategiak, Bodegas Navarrsotillon eta ENS La Torre Verden. Jarduera horietan bete dira osasun agintariek COVID-19tik babesteko protokoloetan eskatutako segurtasun neurri guztiak.

Argazkia: Galburuak biltzen, EST La Torre Verde, Sartaguda, 2020ko irailaren 21a

Proyecto financiado en el marco de las Ayudas a la submedida 16.2 de apoyo para los proyectos piloto y para el desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías del PDR de Navarra 2014-2020. Convocatoria 2019 (EXP. 21019007)

16.2 azpineurrirako Laguntzen esparruan finantzatua, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren (LGP) barneko "Proiektu pilotuei eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berrien garapenari laguntzea" (EXP. 21019007)

Unión Europea FEADER
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
INTIA
upna

Lehen espigamendu segidaren amaiera bat dator Elikagaiak Galtzeari eta Xahutzeari buruzko Kontzientziaziorako Nazioarteko Egunarekin, Nazio Batuek hala izendatua, eta Espigoladors erakundeak #WeAreGleaners kanpaina sustatzeko aukeratutako egunarekin. Kanpaina horretan, hainbat entitatek galburuen bilketak egingo dituzte mundu osoan zehar, eta horiekin espigamenduen garrantzia ikusarazi nahi da elikagaiak galtzearen eta xahutzearen aurka egiteko tresna bezala. Gainera, bat dator "Elikagaiak Xahutzearen aurkako 3. astea"-rekin. Horren sustatzaile dira elikagai-industriako eta -banaketako enpresak eta koordinatzaile AECOC, Kontsumo Handiko Enpresen Elkartea. Aste horrek Nekazaritza eta Elikadura Ministerioaren laguntza du.

Buruxka proiektua Deierriko Udalak, NUPek eta INTIAk sustatzen dute espigamendua gizarte- eta ingurumen-balio gisa berreskuratzeko, 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Planaren (Nafarroako LGP) laguntzarekin, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez: "Europak landa-eremuetan inbertitzen du" eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Galburuak biltzean elikagaiak biltzen dira, uzta jaso ondoren soroan geratu direnak eta saltzeko erabiltzen ez direnak. Buruxkak boluntarioen laguntzarekin biltzen ditu eta hainbat kolektibo sozialen artean birbanatzen ditu elikagaien bizia luzatu asmo zeta egoera zaila bizi duten pertsonak laguntzeko. Ikusi bideoa

Proiektu pilotoak lagundu nahi du soroetan gertatzen diren elikagaien galerek gizartean eta ingurumenean duten eragina murrizten, ikusaraztea lehen sektorearen garrantzia eta elikagaien balioa, eta baita eraldaketa-eragileak prestatzea sentsibiliza dezaten elikagaia xahutzearen inguruan.

Proposamenaren oinarrian dago hainbat entitateren arteko sare-lana sustatzea: Beren soroak eskura jartzen dituzten nekazariak, egoera zaurgarrian dauden pertsonei helarazten dizkieten gizarte-entitateak; eta galburuak biltzen dituzten boluntarioak. Eta epe ertainera, ekonomia sozial eta solidarioko enpresa bat sortzea produktuak eraldatu eta hauen balio-bizitza luzatuko duena.

Ekoizle, entitate eta baita norbanakoren batek ere batu nahiko balu gizartean eta ingurugiroan eragin nahi duen ekimen honetara, buruxka@gmail.com helbidera idatzi dezakete edo proiektuaren webeko formularioen bitartez egin dezakete http://www.yerri.es/eu/buruxka/www.yerri.es/buruxka/

Berrikuntza gizarte-eraldaketarako

Proiektuaren ikuspegia hainbat alorretan berritzailea da Nafarroan eta bat dator Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin eta ekonomia zirkularraren printzipioekin.

Alde batetik, erantzunkidetasuna sustatzen duten gizarte-sentsibilizaziorako eredu berriak proposatzen ditu, parte-hartzen dutenak gizarte-eraldaketarako eragile bihurtuz. Gainera, egoera zailean dauden pertsonei lagunduko die eta lankidetza sustatuko du, entitateen sare bat antolatuz helburu komun baten inguruan.

Bestalde, landa- eta hiri-eremuen arteko elkarrizketa ahalbidetuko du, despopulazioaren testuinguruan hain beharrezkoa dena. Honela, lagunduko du elikagaiei dagokien balioa ematen eta elikadura

Proyecto financiado en el marco de las Ayudas a la submedida 16.2 de apoyo para los proyectos piloto y para el desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías del PDR de Navarra 2014-2020. Convocatoria 2019 (EXP. 21019007)

16.2 azpineurrirako Laguntzen esparruan finantzatua, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren (LGP) barneko "Proiektu pilotuei eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berrien garapenari laguntzea" (EXP. 21019007)

Unión Europea FEADER
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
INTIA
upna

osasungarria, tokikoa eta kalitatezkoa sustatzen.

Azkenik, elikagaien galeran eta xahutzean eragingo du, eta hori funtsezkoa da munduko eta Europako politikak ezartzen dituzten agenda nagusietan, hala nola Europan Ekonomia zirkularra lortzeko Ekintza-planean edo "Baserritik Mahaira" Estrategian. Garapen Jasangarrirako Helburuen 12.3 xedeak proposatzen du 2030erako erdira murriztea elikagaien per capita xahutzea, bai eta elikagaien galerak murriztea ekoizpen- eta hornidura-kateetan zehar.

Hemen irudi gehiago:

https://drive.google.com/drive/folders/19D5HABYipb3ZnTpNFeKZ32p9hrKJQZDd?usp=sharing

Hemen argibide gehiago:

buruxka@gmail.com

http://www.yerri.es/eu/buruxka/

Jarrai gaitzazu: @buruxka

Proyecto financiado en el marco de las Ayudas a la submedida 16.2 de apoyo para los proyectos piloto y para el desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías del PDR de Navarra 2014-2020. Convocatoria 2019 (EXP. 21019007)

16.2 azpineurrirako Laguntzen esparruan finantzatua, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren (LGP) barneko "Proiektu pilotuei eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berrien garapenari laguntzea" (EXP. 21019007)

Unión Europea
FEADER

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua